***Asistentzia Mediko-Farmazeutikoko Aseguru Libreko Entitateen Estatistika***

*Informe de resultados de la Estadística de Entidades de Seguro Libre de Asistencia Médico-Farmacéutica*

# 1999-2000

Eustat
EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA
www.eustat.es

# EMAITZEN ANALISIA

# ANÁLISIS DE RESULTADOS

## INTRODUCCIÓN

La Estadística de Entidades de Seguro Libre de Asistencia Médico-Farmacéutica (ESL) tiene por objeto conocer la situación del sector de seguro libre de asistencia sanitaria en el ámbito de la C.A. de Euskadi.

El conocimiento de la actividad del seguro privado en la rama de asistencia sanitaria requiere suministrar y analizar datos referidos a población asegurada, clases de pólizas, tipos de cobertura, primas, personal y actividad asistencial.

Antes de iniciar el análisis de la actividad del sector de seguro libre de asistencia sanitaria, hay que señalar, como hecho más destacable en el año 2000, el crecimiento del número de asegurados en ESL. Este incremento de la población asegurada en un 2,1% respecto al año anterior, ha supuesto un cambio en la tendencia de los últimos años, definida por el descenso paulatino del número de asegurados, llegando este colectivo a representar en el año 2000 un 15,2% de la población de la C.A. de Euskadi.

## SARRERA

Asistentzia Mediko-Farmazeutikoko Aseguru Libreko Entitateen Estatistikaren (ALE) xedea, Euskal AEren eremuko asistentzia sanitarioko aseguru libreko sektorearen egoera ezagutzea da.

Asistentzia sanitarioaren alorreko aseguru pribatuaren jarduera ezagutzeko beharrezkoa da aseguratutako biztanleriaren datuez hornitzea eta datu horiek aztertzea, hala nola poliza-motak, estaldura-motak, primak, pertsonala eta asistentzia-jardueraren inguruko datuak.

Asistentzia sanitarioko aseguru libreko sektorearen analisia hasi aurretik, 2000. urteko gertaera azpimarragarria aipatu behar da: ALEetan aseguratuen kopuruaren hazkundea. Aseguratutako biztanleria %2,1 hazi zen aurreko urtearen aldean, eta hazkunde horrek azken urteetako joeran aldaketa ekarri zuen, aseguratuen kopurua pixkanaka jaisten joatetik 2000. urtean Euskal AEko biztanleriaren %15,2ra heldu zen kolektiboa izatera pasa baitzen.

**1. TAULA: ASISTENTZIA MEDIKO-FARMAZEUTIKOKO ASEGURU LIBREKO ENTITATEEN ALDAGAI NAGUSIEN BILAKAERA**

TABLA 1. EVOLUCIÓN DE LAS PRINCIPALES VARIABLES DE LAS ENTIDADES DE SEGURO LIBRE DE ASISTENCIA MÉDICO-FARMACEUTICA

| | **EUSKAL AE** C.A. DE EUSKADI | | | | **ESTATUA (*)** ESTADO (*) | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **1988** | **1999** | **2000** | **D 00/99** | **1988** | **1999** | **2000** | **D 00/99** |
| **Aseguratuak /** Asegurados | 408.160 | 309.153 | 315.491 | 2,1 | 4.833.283 | 6.656.946 | 6.855.802 | 3,0 |
| **Biztaleria aseguratuaren %** % de Población Asegurada | 19,2 | 14,9 | 15,2 | 2,0 | 12,3 | 16,6 | 16,9 | 1,8 |
| **Polizak /** Pólizas | – | 157.786 | 154.402 | -2,1 | – | – | – | – |
| **Primak (mila €) /** Primas (Miles € ) | 46.348 | 118.365 | 123.618 | 4,4 | 559.236 | 2.227.952 | 2.414.566 | 8,4 |
| **Biztanleko prima /** Prima por Habitante (€) | 22 | 57 | 60 | 5,3 | 14 | 55 | 60 | 9,1 |
| **Aseguratuko prima /** Prima por Asegurado (€) | 114 | 383 | 392 | 2,3 | 116,0 | 335 | 352 | 5,1 |
| **Gastuak guztira (mila €)** Total Gastos (Miles €) | – | 110.821 | 131.645 | 18,8 | – | – | – | – |
| **ASISTENTZI JARDUERA** ACTIVIDAD ASISTENCIAL | | | | | | | | |
| **Kontsulta-kopurua (milakoak)** Nº de Consultas (miles) | – | 1.138 | 1.142 | 0,4 | | | | |
| **Erradiografia-kop. (milakoak)** Nº de Radiografías (miles) | – | 379 | 396 | 4,5 | | | | |
| **Ospitaleratutako pazienteak** Pacientes ingresados | – | 37.581 | 38.367 | 2,1 | | | | |
| **Egonaldiak /** Estancias | – | 152.553 | 150.511 | -1,3 | | | | |
| **Batez besteko egonaldia /** Estancia media | – | 4,1 | 3,9 | -0,2 | | | | |
| **Ebakuntza kirurgikoak ospitaleratuetan** Intervenciones quirúrgicas en hospitalizados | – | 28.084 | 29.778 | 6,0 | | | | |

**(*) Iturriak** / Fuentes:
- Estadística de Seguros Privados. UNESPA (Unión Española de Entidades Aseguradoras y Reaseguros).
- Informe nº 828, Evolución del Mercado Asegurador en 2000 ICEA (Investigación Cooperativa entre Entidades Aseguradoras y Fondo de Pensiones).

Asimismo, el volumen de negocio, medido por las primas del sector asegurador de asistencia médica, ascendió a 123 millones de euros, con un crecimiento en torno al 4,4% respecto al año anterior, lo que representó un 0,3% del PIB de la C.A. de Euskadi en el año 2000.

Halaber, asistentzia medikoko aseguratzaileen sektorearen primetan neurtutako negozio-bolumena 123 milioi eurora iritsi zen, aurreko urtearekiko %4,4ko hazkundearekin, eta horrek Euskal AEko 2000. urteko BPGren %0,3 suposatu zuen.

## POBLACIÓN ASEGURADA

La población asegurada por las Entidades Privadas de Seguro Libre de Asistencia Médico-Farmacéutica (ESL) en el año 2000 ascendió a 315.491 personas, un 2,1% más que en el año 1999, distribuida entre los tres territorios históricos del siguiente modo: 13,1% en Alava, 70,4% en Bizkaia y 16,5% en Gipuzkoa.

## BIZTANLERIA ASEGURATUA

Asistentzia Mediko-Farmazeutikoko Aseguru Libreko Entitate Pribatuek (ALE) aseguratutako biztanleria 315.491 lagunera igo zen, 1999an baino %2,1 gehiago. Lurralde Historikoka banaketa honako izan zen: %13,1 Araban, %70,4 Bizkaian eta %16,5 Gipuzkoan.

Distribución de los asegurados por territorios históricos (%) Gráfico **1 Grafikoa** **Aseguratuen banaketa lurralde historikoka (%)**




Más de 15 de cada 100 personas de la C.A. de Euskadi tiene contratado un seguro de asistencia sanitaria. Por Territorio Histórico, este porcentaje presenta diferencias significativas; a la cabeza se sitúa Bizkaia que cuenta con la mayor proporción de asegurados con un 19,8%, seguida de Alava con un 14,5%, y de Gipuzkoa, distanciada de las dos anteriores, con un 7,8%.

**Examinando la evolución en años anteriores**, este aumento de la población asegurada en 6.338 personas (+2,1%) respecto al año 1999, supone un receso en la tendencia de estos últimos once años (1988-1999), marcada por el descenso progresivo del número de personas aseguradas; si bien, este crecimiento no ha sido suficiente como para alcanzar las cifras de asegurados registradas en años anteriores, en especial las comprendidas en el periodo 1988-1995. Tanto es así , que entre los años 1988 y 2000 la población asegurada ha disminuido en 92.669 personas (22,7%). El porcentaje de población asegurada ha pasado del 19,2% en 1988 al 15,2% en el

Euskal AEko 100 lagunetik 15 baino gehiagok dauka kontratatua asistentzia sanitarioko aseguruen bat. Lurralde Historikoka, desberdintasun esanguratsuak ditu ehuneko horrek: Bizkaia dago buru aseguratuen proportzio handienarekin, %19,8rekin, ondoren Araba %14,5ekin eta aurreko bietatik urrun, Gipuzkoa, %7,8rekin.

**Aurreko urteetako bilakaera aztertuta**, aseguratutako biztanleria %+2,1 hazi zen 1999. urtearen aldean, 6.338 lagun gehiago aseguratu ziren eta hazkunde horrek azken 11 urteotako (1988-1999) aseguratutako pertsona-kopurua progresiboki gutxitzeko joera eten egin zuen. Hala ere, hazkunde hori ez zen nahikoa izan aurreko urteetako aseguratu-kopurura heltzeko, batez ere 1988-1995 aldiko kopurura heltzeko. Izan ere, 1988-2000 bitartean biztanleria aseguratuak 92.669 lagun galdu zituen, %22,7. Aseguratutako biztanleriaren ehunekoa jaitsi egin zen 1988ko %19,2tik 2000ko %15,2ra, hots, lau puntu galdu zituen. Jokabide hori Lurralde Historiko guztietan

año 2000, lo que ha supuesto una reducción de 4 puntos. Este mismo comportamiento se reproduce en los tres territorios, aunque de forma más pronunciada en Alava, donde la reducción del porcentaje de la población asegurada fue de 8 puntos, seguida de Bizkaia y de Gipuzkoa, con 4 y 2,3, respectivamente.

eman zen, baina nabarmenagoa izan zen Araban, biztanleria aseguratuaren ehunekoaren jaitsiera 8 puntukoa izan baitzen. Bizkaia eta Gipuzkoak 4 eta 2,3 puntu galdu zituzten, hurrez hurren.

Número de asegurados por territorio histórico.
Años 1988-2000 Gráfico **2** **Grafikoa**

**Aseguratu-kopurua lurralde historikoka.**
**1988-2000 urteak**




**En el conjunto del Estado**, la población asegurada en ESL también aumentó en el año 2000, y en una proporción mayor que la registrada en la C.A. de Euskadi, con un crecimiento en torno al 3%[1] respecto al año anterior. Contrariamente a lo ocurrido en Euskadi en estos últimos 12 años, en el Estado se mantiene la tendencia ascendente, alcanzando entre 1988 y 2000 un incremento del 41,8% de la población asegurada.

**Estatuan** ere, ALEetan aseguratutako biztanleria igo egin zen 2000. urtean eta gainera, Euskal AEn baino ehuneko handiagoan, aurreko urtearen aldean %31 inguru hazi baitzen. Euskadin ez bezala, Estatuan azken 12 urteetan goranzko joera mantendu egin zen eta 1988 eta 2000 artean aseguratutako biztanleriak %41,8ko igoera izan zuen.

Porcentaje de población asegurada.
Años 1988-2000 Gráfico **3** **Grafikoa**

**Aseguratutako biztanleriaren ehunekoa.**
**1988-2000 urteak**



**Entre las ESL que operan en la C.A. de Euskadi**, los Igualatorios son los que concentran la mayor cuota de mercado con el 82,2% de la población asegurada, lo que representa un total de 259.246 asegurados; a continuación, las Compañías de Seguro privado con el 16,7% y las Entidades de Previsión Social Voluntaria (EPSV) y las Mutuas aseguradoras de asistencia sanitaria con el 1,1%. Respecto al año anterior, las Compañías de Seguro privado de salud son las que han experimentado una evolución más favorable al haber ampliado el colectivo asegurado en un 25,3% .

**Euskal AEn lan egiten duten ALEen artean**, igualatorioak dira merkatuko kuota handiena hartzen dutenak, aseguratutako biztanleriaren %82,2 hartzen baitute, hau da, guztira 259.246 aseguratu. Jarraian, aseguru-etxe pribatuek %16,7 hartzen dute, eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek (BGAE) eta asistentzia sanitarioko Mutua aseguratzaileek %1,1. Aurreko urtearen aldean, osasuneko aseguru-etxe pribatuak dira bilakaerarik onuragarriena izan dutenak, aseguratuen kolektiboa %25,3ra zabaldu baitute.

Distribución de los asegurados por tipo de entidad. Años 1999-2000 (%) Gráfico **4 Grafikoa** **Aseguratuen banaketa, entitate motaren arabera. 1999-2000 urteak (%)**




**Atendiendo a la modalidad de póliza contratada**, continúa siendo la póliza de tipo indivual o familiar la que agrupa al mayor número de asegurados, con un 54,8% ; sin embargo, en el año 2000 el colectivo asegurado en pólizas enfocadas a empresas u otros colectivos concretos fue el que más creció, con un 12,2% más de asegurados respecto al año anterior. Asimismo, en cuanto a las modalidades de cobertura de las pólizas contratadas, la inmensa mayoría de la población asegurada, un 99%, elige pólizas de asistencia sanitaria general y tan sólo un 1% decide contratar otras modalidades de póliza.

**Por ámbito de actuación**, las ESL comunitarias, es decir, las que desarrollan toda su actividad en la C.A.de Euskadi, cubren el 78,1% de los asegurados, quedando el 21,9% restante para las de ámbito supracomunitario o estatal. No obstante, han sido estas últimas, las ESL supracomunitarias, las que mayor tirón han experimentado, habiendo ampliado en un 26,2%, respecto al año anterior, su cuota de participación en el sector de seguro libre de asistencia sanitaria.

**Kontratatutako poliza-motari dagokionez**, oraindik ere aseguratu gehien biltzen duen poliza-mota banakakoa edo familiarra da, %54,8rekin. Hala ere, 2000. urtean enpresetara edo bestelako kolektibo jakinetara bideratutako polizetan aseguratutako kolektiboa izan zen gehien hazi zena eta aurreko urtearen aldean, %12,2 aseguratu gehiago lortu zituen. Halaber, kontratatutako polizen estaldura-motari dagokionean, aseguratutako biztanleriaren gehiengo handiak, %99k, asistentzia sanitario orokorreko polizak aukeratu zituen eta %1ek bakarrik erabaki zuen bestelako poliza-motaren bat kontratatzea.

**Jarduketa-eremuaren arabera**, erkidegoko ALEek, hots, beren jarduketa guztia Euskal AEn garatzen dutenek, aseguratuen %78,1 hartzen dute eta gainerako %21,9a erkidegoaz gaindiko edo estatuko eremukoek hartzen dute. Hala ere, azken horiek izan dira, erkidegoaz gaindiko ALEak, saltorik handiena izan dutenak, aurreko urtearen aldean %26,2 zabaldu baitute beren partizipazio-kuota asistentzia sanitarioko aseguru libreko sektorean.

Asegurados por tipo de póliza.
Años 1999-2000 (%)

Gráfico 5 **Grafikoa**

**Aseguratuak poliza-motaren arabera.**
**1999 eta 2000 urteak (%)**




Asegurados por ámbito de actuación.
Años 1999 y 2000(%)

Gráfico 6 **Grafikoa**

**Aseguratuak jarduketa-eremuaren arabera.**
**1999 eta 2000 urteak (%)**




## ACTIVIDAD ECONÓMICA: PRIMAS

El gasto total del sector de seguro libre de asistencia sanitaria en la C.A. de Euskadi ascendió a 131 millones de euros en el año 2000. El pago de los honorarios del personal médico y de enfermería (44,3%), junto a los gastos por hospitalización y uso de quirófano (30,6%), representaron el 75% del total del gasto; repartiéndose el 25% restante entre el gasto de otros servicios clínicos de diagnóstico (análisis clínicos, radiología, y otras exploraciones), gastos de gestión, y otros.

## JARDUERA EKONOMIKOA: PRIMAK

Euskal AEko asistentzia sanitarioko aseguru libreko sektorearen guztizko gastua 131 milioi eurokoa izan zen 2000. urtean. Medikuen eta erizainen ordainsariek (%44,3) eta ospitaleratzeen eta operazio-gelak erabiltzearen gastuek (%30,6) guztizko gastuaren %75 hartu zuten. Gainerako %25 diagnostikorako zerbitzu kliniko batzuen (analisi klinikoak, erradiologia eta bestelako miaketak), kudeaketa-gastuen eta bestelako gastuen artean banatu zen.

Por otra parte, el total de ingresos en el sector de Seguros de Asistencia Sanitaria fue de 130 millones de euros; correspondiendo por territorio el 10,7% a Alava, el 71,9% a Bizkaia y el 17,4% restante a Gipuzkoa. Asimismo, las primas recaudadas constituyen la principal fuente de ingresos de esta rama de actividad, dado que representan el 95% del volumen de negocio.

Bestalde, asistentzia sanitarioko aseguru libreko sektorearen guztizko sarrerak 130 milioi eurokoak izan ziren eta lurraldeka %10,7 Arabari dagokio, %71,9 Bizkaiari eta gainerako %17,4 Gipuzkoari. Halaber, jasotako primak dira jarduera-adar honen diru-iturri nagusiak, negoziobolumenaren %95 hartzen baitute.

**PRIMAS**

El total de primas recaudadas durante el año 2000 ascendió a 123 millones de euros, un 4,4% más respecto al año anterior, mientras que en el Estado este incremento fue del 8,4%[1]. El importe total de las primas de ESL representó un 0,3% del PIB en el año 2000, resultando la distribución de ingresos siguiente: un 85% de los Igualatorios, el 14,3% de las Compañías de Seguro privado y el 0,7% restante, de las Entidades de Previsión Social Voluntaria (EPSV) y Mutuas aseguradoras de asistencia sanitaria.

**PRIMAK**

2000n jasotako primen guztizkoa 123 milioi eurora iritsi zen, aurreko urtean baino %4,4 gehiago, eta Estatuan, berriz, hazkundea %8,4koa izan zen. ALEetako primen guztizkoak 2000ko BPGren %0,3 suposatu zuen eta sarreren banaketa honakoa izan zen: %85 igualatorioena, %14,3 aseguru-etxe pribatuena eta gainerako %0,7 borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeena (BGAE) eta asistentzia sanitarioko Mutua aseguratzaileena.

Distribución de las primas por tipo de entidad (%) Gráfico 7 **Grafikoa** **Primen banaketa entitate-motaren arabera (%)**




**La prima media anual** por asegurado para el conjunto de la C.A. de Euskadi fue de 392 euros, superior a la registrada en el estado (352 euros)[1], y experimentó un incremento del 2,3% respecto al año anterior. Por territorio, se aprecian diferencias significativas: Gipuzkoa recoge la prima media anual más alta de los tres territorios con 423 euros, seguida de Bizkaia con 396 euros y de Alava con 332 euros, situándose esta última por debajo incluso de la prima media estatal.

Euskal AEn, aseguratuko **batez besteko urteko prima** 392 eurokoa izan zen, estatukoa baino altuagoa (352 euro) eta %2,3ko hazkundea izan zuen, aurreko urtearen aldean. Lurralde Historikoka desberdintasun esanguratsuak nabari dira: Gipuzkoak jaso zuen batez besteko urteko primarik altuena, 423 eurokoa; atzetik, Bizkaiak 396 eurokoa eta Arabak 332 eurokoa, azken hau estatuko batez bestekoa baino ere baxuagoa.

**La evolución del volumen de primas en el mercado sanitario privado en la C.A. de Euskadi en el período 1988-2000, medido en precios constantes**, ha sido creciente, experimentando un incremento del 60%; mayor aún ha resultado la prima media anual por asegurado, con el 107%. En el conjunto del Estado este creci-

**1988-2000 aldian, Euskal AEko merkatu sanitario pribatuko primen bolumenaren bilakaera prezio konstanteetan neurtuta**, goranzkoa izan da eta %60ko gehikuntza izan du, eta are handiagoa izan da aseguratuko batez besteko urteko primarena %107rekin. Estatuan, asistentzia sanitarioko adarreko primen hazkundea

miento de la primas en la rama de asistencia sanitaria ha sido superior al obtenido en la C.A. de Euskadi con un 159%, mientras que la prima media anual por asegurado ha registrado un ritmo de crecimiento inferior, con un 82%

Euskal AEkoa baino handiagoa izan da %159rekin eta aseguratuko batez besteko urteko primak, aldiz, hazkunde-erritmo apalagoa izan du %82rekin.

Evolución de la prima media anual por asegurado (euros constantes 1988). Años 1988-2000 Gráfico **8** **Grafikoa**

**Aseguratuko batez besteko urteko primaren bilakaera (euro konstanteak 1988). 1988-2000 urteak**




Entre las ESL, los Igualatorios registraron la prima media anual más alta con 405 euros, le siguieron las Compañías de Seguro privado con 337 euros y las EPSV y Mutuas aseguradoras con una prima media de 225 euros. No obstante, en el año 2000 las Compañías de Seguro privado se distinguen de las otras entidades por haber descendido el valor de la prima media anual, respecto al obtenido el año anterior (369 euros).

Asimismo, las ESL de ámbito supracomunitario contabilizaron una prima media anual (358 euros) inferior a la registrada en el año 1999 (373 euros), a diferencia de las ESL que operan exclusivamente en la C.A. de Euskadi, que además de haber incrementado el precio de la prima en un 4,2 %, respecto al año anterior, éste se sitúa por encima de las de ámbito supracomunitario (401 euros).

**El gasto medio por habitante de la C.A. de Euskadi** en el sector sanitario de seguro libre fue de 60 euros, un 5,3% más respecto al año anterior; superado a nivel territorial por Bizkaia con el promedio más alto de los tres territorios (78 euros), mientras que Alava y Gipuzkoa registraron un gasto medio inferior, de 48 euros y 33 euros, respectivamente.

**Si analizamos el periodo 1988-2000, la evolución del gasto medio por habitante en asistencia sanitaria privada en la C.A. de Euskadi, medido en precios constantes**, ha sido creciente, resultando este incremento de un 64%, si bien por debajo del obtenido en el Estado (150%).

ALEen artean, igualatorioek izan zuten batez besteko urteko primarik altuena 405 euroko primarekin; horien ondoren, aseguru-etxe pribatuak 337 eurokoarekin eta azkenik, BGAE eta mutua aseguratzaileak 225 eurokoarekin. Dena den, 2000. urtean aseguru-etxe pribatuak gainerako entitateengandik bereiztu egin ziren batez besteko urteko primaren balioa, aurreko urtekoaren aldean (369 euro) jaisteagatik.

Orobat, erkidegoaz gaindiko ALEek batez besteko urteko prima baxuagoa (358 euro) zenbatu zuten 1999an baino (373 euro), Euskal AEn bakarrik lan egiten duten ALEek ez bezala. Azken hauek, primaren prezioa aurreko urtearen aldean %4,2 igotzeaz gain, erkidegoaz gaindikoenen primaren (401 euro) gainetik kokatu baitute eurena.

**Euskal AEko biztanleko batez besteko gastua** aseguru libreko sektore sanitarioan 60 eurokoa izan zen, %5,3 gehiago aurreko urtearen aldean. Lurralde mailan, Bizkaiak erkidegoko batez bestekoa gainditu eta hiru lurraldeetako batez bestekorik altuena izan zuen (78 euro), eta Arabak eta Gipuzkoak, berriz, gastu txikiagoa izan zuten, 48 eta 33 eurokoa, hurrenez hurren.

**1988-2000 aldia aztertuz gero, Euskal AEko asistentzia sanitario pribatuko biztanleko batez besteko gastuaren bilakaera, prezio konstanteetan neurtuta**, goranzkoa izan da eta hazkundea %64koa izan da, baina hala ere, Estatuan lortutakoaren azpitik dago (%150).

Evolución del crecimiento del gasto medio por habitante (euros constantes 1988). Años 1988-2000

Gráfico **9** **Grafikoa**

**Biztanleko batez besteko gastuaren hazkundearen bilakaera (euro konstanteak). 1988-2000 urteak**




## PERSONAL

El conjunto de las ESL en el sector sanitario de seguro privado en el año 2000 puso a disposición de sus asegurados a un total de 7.663 profesionales, con un cuadro médico de 1.292 generalistas y 5.539 especialistas.

Del personal facultativo por especialidades, fueron las quirúrgicas las que concentraron una mayor oferta de facultativos con un 38,4%, seguidas de las médicas (29,7%), Medicina General y Pediatría (23,7%), y por último las de Análisis Clínicos y Radiología con un 5,1 y 3,1%, respectivamente.

El 10,9% restante, que representa el resto de personal de ESL, se distribuye entre las siguientes categorías: el 5,2% es personal de enfermería, el 4,3% otro personal sanitario, y el 1,4% restante es personal no sanitario.

Atendiendo al tipo de entidad aseguradora, un 49,4% del cuadro médico de las ESL correspondió a las Compañías de Seguro privado, un 43,5% a Igualatorios y el 7,1% a EPSV y las Mutuas aseguradoras de asistencia sanitaria. Las Compañías de Seguro privado fueron las que más ampliaron la oferta de personal médico con un 59,7% más de profesionales respecto al año 1999.

Por territorios históricos, Bizkaia contó con el mayor número de personas dedicadas a la asistencia sanitaria del sector de seguro privado con el 45,6%, seguida de Gipuzkoa con el 42,2%, y de Alava con el 12,2% restante.

Entre el personal sanitario, la modalidad de retribución más extendida fue el pago por acto médico en un 93,4% de los casos, mientras que el 6,6% restante, correspondió al pago capitativo.

## LANGILERIA

2000. urtean, aseguru pribatuko sektore sanitarioko ALEek 7.663 profesional jarri zituzten beren aseguratuen eskuerara, 1.292 orotariko mediku eta 5.539 espezialista.

Mediku fakultatiboak espezialitateka aztertuta, espezialitate kirurgikoak izan ziren fakultatibo eskaintzarik handiena izan zutenak (%38,4), ondoren espezialitate medikoak (%29,7), medikuntza orokorra eta pediatria (%23,7) eta azkenik, analisi klinikoak eta erradiologia (%5,1 eta %3,1 hurrenez hurren).

Gainerako %10,9, hots, ALEetako gainerako langileak honako kategorietan banatu ziren: %5,2 erizaintzako langileak, %4,3 beste langile sanitarioak eta %1,4 langile ez-sanitarioak.

Entitate aseguratzailearen motari dagokionez, ALEetako medikuen %49,4 aseguru-etxe pribatuei zegokien, %43,5 igualatorioei eta %7,1 BGAE eta asistentzia sanitarioko mutua aseguratzaileei. Aseguru-etxe pribatuak izan ziren medikuen eskaintza gehien zabaldu zutenak, 1999an baino %59,7 profesional gehiagorekin.

Lurralde Historikoka, Bizkaia izan zen aseguru pribatuko sektoreko asistentzia sanitariora dedikatutako pertsona gehien izan zuena %45,6rekin, ondoren Gipuzkoa %42,2rekin eta Araba %12,2rekin.

Pertsonal sanitarioaren artean, ordainketa egiteko modurik zabalena egintza mediko bakoitzeko ordainketa izan zen, kasuen %93,4an hala egin baitzen, eta gainerako kasuetan, %6,6an, berriz, ordainketa modu kapitatiboan egin zen.

## ACTIVIDAD ASISTENCIAL

### Actividad asistencial hospitalaria

Los 38.367 ingresos hospitalarios causados por asegurados en las ESL, un 2,1% más respecto al año anterior, representaron el 14% del total de pacientes ingresados en los hospitales vascos en el año 2000.

Asimismo, los pacientes de aseguradoras privadas ocasionaron un total de 150.511 estancias, un 1,3% menos respecto al año anterior, alcanzando un 6,2% de las estancias hospitalarias en la C.A. de Euskadi. Este descenso del número de estancias supuso una estancia media de 3,9 días, 0,2 días inferior respecto al año anterior, lo que viene a confirmar la tendencia generalizada de reducción del tiempo de estancia media hospitalaria.

Del total de intervenciones quirúrgicas, 29.778 fueron realizadas con hospitalización, lo que significó que aproximadamente un 77% de los pacientes hospitalizados en régimen de aseguradoras médicas tuvieron una intervención y el resto (6.791) fueron practicadas de forma ambulatoria.

En cuanto a la atención de urgencias, el número total de urgencias atendidas en centros hospitalarios con cargo a ESL ascendió a 16.881, de las cuales sólo un 4,3% causaron ingreso hospitalario.

### Consultas

Un total de 1.141.750 consultas fueron atendidas entre la población asegurada en las ESL ( un +0,3% respecto al año 1999), lo que arroja una media de más de tres consultas por asegurado. Este leve aumento de la actividad de consultas externas ha sido mayor en las Compañías de Seguro privado, donde se han registrado un 16% más que el año anterior .

El mayor volumen de consultas se concentró en las especialidades de Traumatología, Pediatría Tocoginecología y Oftalmología. Sin embargo, este mismo dato difiere por tipo de entidad; en el caso de las Compañías de Seguro privado, las especialidades de Medicina General y Tocoginecología fueron las más frecuentadas.

La relación entre las consultas sucesivas y las primeras consultas atendidas fue de 0,95, superando las primeras consultas a las sucesivas. Este ratio difiere según el tipo de ESL; así sucedió con los Igualatorios donde las consultas sucesivas fueron más numerosas que las primeras (1,03).

[1] Informe nº 828, "Evolución del Mercado Asegurador en 2000". Asociación ICEA (Investigación Cooperativa entre Entidades Aseguradoras y Fondo de Pensiones).

## ASISTENTZI JARDUERA

### Ospitale barruko asistentzi jarduera

ALEetako aseguratuek 38.367 ospitaleratze izan zituzten, %2,1 gehiago aurreko urtearen aldean, eta 2000n erkidegoko ospitaleetan ospitaleratutako pazienteen %14 suposatu zuten.

Halaber, aseguru-etxe pribatuen pazienteek 150.511 egonaldi egin zituzten, aurreko urtearen aldean %1,3 gutxiago, eta Euskal AEko ospitaleetako egonaldien %6,2 izatera iritsi ziren. Egonaldiak gutxitzeak 3,9 eguneko batez besteko egonaldia ekarri zuen, 0,2 egun laburragoa aurreko urtearen aldean. Datu horrek, ospitaleetako egonaldien batez bestekoa murrizteko joera orokorra baieztatzen du.

Ebakuntza kirurgikoa guztietatik 29.778, ospitaleratuta egin ziren, beraz, mediku-aseguratzaileen erregimenean ospitaleratutako pazienteen %77k gutxi gorabehera, ebakuntza izan zuten eta gainerakoak (6.791) modu anbulatorioan egin ziren.

Larrialdiei dagokienez, ALEen konturako ospitaleetan atenditutako larrialdiak 16.881 izan ziren eta horietatik %4,3k bakarrik ekarri zuten ospitaleratzea.

### Kontsultak

ALEetan aseguratutako biztanleriaren artean, 1.141.750 kontsulta atendituzi ziren (%+0,3 1999. urtearen aldean) eta horrek aseguratu bakoitzeko hiru kontsulta baino gehiagoko batez bestekoa ematen digu. Kanpo-kontsulten jardueraren gehikuntza arin hori handiagoa izan da aseguru-etxe pribatuen kasuan, %16 gehiago izan baitira aurreko urtean baino.

Kontsulten kopururik handiena honako espezialitateetan eman zen: traumatologian, pediatrian, tokoginekologian eta oftalmologian. Hala ere, datu horrek berak aldaketak ditu entitate-motaren arabera; aseguru-etxe pribatuen kasuan, medikuntza orokorra eta tokoginekologia izan baitziren espezialitaterik erabilienak.

Atenditutako lehenengo kontsulten eta ondorengo kontsulten arteko erlazioa 0,95ekoa izan zen eta lehenengo kontsultek gainditu egin zituzten ondorengoak. Ratio hori ere aldatu egiten da ALEen motaren arabera, eta igualatorioetan ondorengo kontsultak gehiago izan ziren lehenengoak baino (1,03).

[1] 828 zenbakidun txostena, "Evolución del Mercado Asegurador en 2000". asociación ICEA (Investigación cooperativa entre Entidades Aseguradoras y Fondo de Pensiones).